

**2013KO URRIAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO PREMIAZKO
APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Premiazko apartekoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya Gonzalez
Aitor Larburu Izaguirre
Asier Sarriegui Zumarraga
Cecilia Herrador Garin
Idoia Baztarrika Prieto
Garbiñe Zurutuza Fernández

EZ DIRA ETORRI: Aitor Aldasoro Iturbe
M^a Luisa Valles Fernandez
Leire Artola Ugalde
Iñigo Arrese Artabe
Encarna Arrieta Telleria
Eva Diaz del Rio
Alfonso Segade Gonzalez
Josi Insausti Mujika
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1- PREMIAZKO AITORPENA. Premiazkotasuna aldarrikatzea.

Alkatea jaunak (BILDU): “Gaur premiazko oso bilkura deitu izan beharrean izan gara berriz ere. Bakea eta normalizazioa nahi ez dutenek eraso zuzendu digutelako guardia zibila gerra armaz buru jarrita. Premiazko deialdia egin beharra arrazoitu beharrik ez dagoela uste dugu, egun hauetan eremu guztietako eragileongan herrira presoan eta giza eskubideen aldeko mugimenduaren aurkako makro operazioak sekulako astindua suposatu duelako. Guztiok kolpatu gaituen eraso da. Lehenik eta behin euskal gizartea gatazkaren eta enfrontamenduaren zulo beltzetik irteten ari zen unean datorrelako. Justu herriak eskatzen duen kontrako norabidean, hain zuzen ere. Bigarrenik, beste garaiko eskemara itzultzen gaituelako, hau da, orain herriaren aurka egin dutena, edozein uneetan beste edonoren aurka burutu dezaketenaren mehatxua, zabalik geratzen delako. Euskal Herrian giza eskubideen defentsan, euskal gintzan, kazetaritzan, gazte mugimendua edota politikaren edozein eremutan lan egiten dugunok gaude mehatxu horren jo puntuan. Azken batean gizarte honek erabakitzen duen oro eta egiten duen guztia Estatuaren gustukoa ez bada, deuseztatuta beharko luketen epaitegi berezien eta beso armatuen menpe geratzen delako. Salbuespen egoera iraunkorra aplikatzen ari zaigu. Hirugarrenik, kartzeletan sakabanatuta, bakartuta eta gehiegitan tratu txarren menpe dauden presoan eskubideak babesik gabe utzi nahi dituztelako ere da oso larria, HERRIRAREN aurkako operazioa. Presoak kaleratzeaz hitz egin behar genuenean, kartzelak betetzen jarraitzen dutelako. Udal hau herriaren parte ere badelako eta gai hauen aurrean sentsible izan nahi duelako gaude hemen. Horregatik saiatu gara gizartearen sentsibilitate hori ekimen elkartuan aurkezten.

Aipatu, gaur aurkezten dugun mozioa, ARALAR eta BILDUK sartutakoa dela. EAJrekin ere beste mozio bat adostuta zegoen, baina ikusirik EAJ eta gainontzeko alderdiak bizkar eman diela pleno honi, guk gure mozioa eramango dugu aurrera. Lehenik tokatuko zaigu pleno hau eta mozioa premiazko puntu bezala hartzea eta bozkatzea.

Beraz premiazko aitorpena bozkatu da eta aho batez onartu da izaera hori ematea, aipatutako arrazoiak direla medio.

2- MOZIOA. Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo mozioa irakurri du:

“Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik, Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan diraute. Euskal presoen eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriaren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoen euskal herriratzearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriaren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztopatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politikoa horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzea ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

1.- Beasaingo Udalak Herriaren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.

2.- Beasaingo Udalak Herriaren kriminalizazioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.

3.- Beasaingo Udalak euskal presoen euskal herriratzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu,

4.- Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da mozioa.

Batzarraldira etorri diren herritarrak txalo egin dute.

Jarraian, Alkateak esan du, 19,30etan HERRIRAK deituriko kontzentrazioa izango dela eta 20,00etan manifestazioa.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.